



Antiguako San Joan sua, iaz. ANE LAREKI

'Antiguotarrak gera' abesti berria estreinatuko dute jaietan

Kalakaneko Thierry Biscaryk Antiguotarrak dantza taldearentzat sortutako abestia da, eta hilaren 21ean, Dantza Egunean, aurkeztuko diote auzoari. Ondo ateratzen bada, San Joan bezperan abestu eta dantzatuko dute berriro, eta urteroko tradizio bihurtu nahi dute.

Sara Iburguren Etxeberria

Antiguako sanjoanak gaur hasi eta hilaren 23an amaituko dira, San Joan suaren inguruko festarekin. Egitaraua ongi lotua du dagoeneko Antiguotarrak dantza taldeak, jai hauen antolatzaileak, eta bertako kide Lide Perezek (Antigua, 1999) azaldu duenez, berritasun gutxi badago ere, duela hainbat urte auzoan izan

ez dituzten jarduera batzuk berreskuratuko dituzte.

Lehenengo asteburua «gazteen-tzako erakargarriagoa» izan daitekeela nabarmendu du, «parranda gaur eta bihar dagoelako». Datorren asteburua, berriz, garrantzitsuagoa da Antiguotarrak dantza taldearentzat, tartean, Dantza Eguna dagoelako. Gaur egun, 120 dantzari

inguru ditu Antiguotarrak dantza taldeak.

Asteburu honetan, ez dira faltatuko dagoeneko ohitura bihurtu den Street Boulder txapelketa, Ez Don/k Hamahiru Antiguon Hamalau ekitaldia, herri afaria, bazkari solidarioa edo futbito txapelketa, besteak beste. Gainera, kontzertuei dagokienez, gaur gauean, Zilibito Records taldea izango da, eta ondoren, Emaion erromeria eta DJ-ak. Bihar ere DJ gaua izango dute Antiguan.

Igandetik aurrera, atsedean hartuko dute, eta ostegunean (hilak 18) berrartuko dute egitaraua. «Aurten, Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna berreskuratutugu, lehengo urtean ezin izan genituelako ekarri data kontuengatik», zehaztu du Perezek. Hain zuzen ere, Porrotx eta Marimotots izango dira auzoko frontoian ostegunean, *Ostirala iritsi da!* ikuskizunarekin.

Dantza Eguna eta San Joan bezpera

Bigarren asteburua girotzen hasteko, hilaren 20an XXXII. Antiguotarrak Pala Txapelketa egingo dute, eta ondoren, bertso afaria izango da Txirain elkartearen, Ane Labaka, Miren Artetxe eta Onintza Enbeita bertsolariarekin.

Larunbatean ospatuko dute Dantza Eguna, eta 11:45ean dantza taldeak kalejira egingo du Matia kalean zehar. 13:00etan, emanaldia egingo dute frontoian. «Aurreko urtean, jubilatuak gurekin dantzatzen hasi ziren, eta aurten, jarraitu egingo dute», azaldu du Perezek.

Arratsaldean, dantzek jarraipena izango dute, emanaldi ikusgarri batekin: «Tio Teronen Semeak dantza taldea etorriko da, eta ez da lehen aldia izango, duela hiru edo lau urte ere izan genituelako». Oraingoan, *Haurreskolari* ikuskizuna eskainiko dute, Antiguako frontoian, 18:00etan. Gainera, eguna girotzeko, sardina jatea eta taberna izango dituzte egun osoan zehar, Mikel Laboa plazan.

Hilaren 23an, San Joan bezpera ospatuz emango diete amaiera Antiguako jaiari. 19:00etan, buruhandiak izango dira Loretope konpartsaren

eskutik. 22:00etan, San Joan sua piztuko dute Gaskonia plazan, eta konjuria, soka dantza herrikoia eta lore sortaren banaketa egingo dituzte. Azkenik, erromeriaz eta zezensuzkoaz gozatzeko aukera izango dute.

Abesti berriaren aurkezpena

Kalakan taldeko Thierry Biscary abeslariak kantu berri bat sortu du aurten Antiguotarrak dantza taldearentzat: Antiguotarrak gera. «Oraindik 23koa pixka bat ixteko daukagu, baina abesti horrekin sortutako dantza 21ean aurkeztuko dugu, Dantza Egunean. Ondo ateratzen bada, 23an berriro dantzatuko dugu, eta asmoa da, hemendik aurrera, abesti hori abestea eta dantzatzea sanjoanetan», jakinarazi du Perezek.

Tio Teronen Semeak dantza taldeak 'Haurreskolari' ikuskizuna eskainiko du Antiguako frontoian, hilaren 21ean, 18:00etan

Jaietarako gogoz daude auzoan, eta egitarauari hasiera emateko, 19:00etan hasiko da gaur Street Boulder txapelketa, Mikel Laboa plazan. Izen emateak bertan egin beharko dira, 18:00etatik 19:00etara. Hortik aurrera, aspertzeko aukerarik ez dute izango bi asteburuz. ●



OSTIRALA 13

19:00

Street Boulder txapelketa Mikel Laboa plazan, Platerotarrak-en eskutik.

19:30

Presoen aldeko manifestazioa Bentaberri plazatik hasita.

20:30

Afari herrikoia auzoko elkartearen laguntzarekin, frontoian.

22:00

Ez Don/k Hamahiru Antiguon Hamalau ekitaldia frontoian.

23:30

Zilibito Records taldearen kontzertua.

17:00

Emaion erromeria eta DJ-ak.

LARUNBATA 14

Gazte Eguna

10:30

Futbito txapelketa Antiguako frontoian.

15:00

Bazkari solidarioa Txantxarreka gaztetxean.

17:00-20:00

Haurtxoko eta gaztelekua Alfontso XIII.a plazan.

17:30

Futbitoko finalerdiak eta finala.

18:30

Arranopola txaranga, Istingorra kaletik abiatuta.

20:30

Jamaiketako DJ-a eta Mr. Luken. Jarraian, auzoko DJ gaua.

Triku Harri
Ondo pasa jaietan!
taberna & jatetxea
Matia Kalea 35, Antigua
www.trikuharrijatetxea.com

Gora Antiguako sanjoanak!
@lamerameradonosti
Matia kalea, 38 - Donostia - Tel.: 943-96 85 75

IGANDEA 15

10:00

Futbol topaketa 6-12 urte bitarteko haurrentzat, Bentaberriko pistetan.

18:00

Flashmob dantza latinoak Toki Atsegiña Jubilatuen taldearekin frontoian.

OSTEGUNA 19

17:00

Ostirala iritsi da! ikuskizuna, Porrotx eta Marimotots Antiguako frontoian.

OSTIRALA 20

18:00

Haurrentzako jolasak Jose Maria Sert plazan Auskalo aisialdi taldearen eskutik.



XXXII. Antiguotarrak Pala Txapelketa. Txemi Lasarte Memoriala.

21:00

Bertso afaria Txirain elkartean: Ane Labaka, Miren Artetxe eta Onintza Enbeita.

LARUNBATA 21

Dantza Eguna

10:00

Diana auzoko txistulari eta dultzaineroekin.

11:45

Antiguotarrak Euskal Dantza taldearen kalejira Matia kalean zehar.

13:00

Euskal dantzen emanaldia frontoian.

18:00

Tio Teronen Semeak taldearen *Haurreskolari* ikuskizuna Lugaritz K.E.-ren eskutik, Antiguako frontoian.

Egun osoan zehar

Sandina jana eta taberna Mikel Laboa plazan.



OLIYOS

TABERNA · JATETXEA

Gora San Joan jaiak!

Jose txo Erregezaintza 4,
Irurtia Balerdi DONOSTIA
Tel.: 943-21 49 89





basmodec

Margotu poztasunez jaiak!

ZURE PINTURA DENDA

PINTURA · PAPER MARGOTUAK
EGURRA BABESTKO PRODUKTUAK
LURRAK · BINILOAK · DEKORAZIOA
ALFONBRA ETA MOKETAK



BENTA BERRI Jose Goikoa Z/G - 943 15 55 79
GROS Secundino Esnaola, 19 - 943 28 26 11
AMARA Eustasio Amilibia, 11 - 943 45 67 04
HERNANI Akarregi Poligonoa, Pab.3A - 943 52 16 50

IGANDEA 22**11:30**

Haurrentzat herri kirolak Antiguako frontoian.

17:00

Antigua vs. Aiete herri kirolak Antiguako frontoian.

ASTELEHENA 23**19:00**

Buruhandiak Antiguotarrak elkartetik hasita, Loretope konpartsaren eskutik.

22:00

San Joan sua Gaskonia plazan: konjurua, soka dantza herrikoia eta lore sortaren banaketa.

22:30

Erromeria Gaskonia plazan. Jarraian, zezensuzkoa.

**MIKEL**

Harategia · Urdaitegia



Ondo pasa Antiguako jaietan!


Juan de Garai kalea, 1, 20008 Donostia
943-21 29 63 · 615-75 26 33

PLATE RO
taberna

**LEGAZPI 6**
EUSKALTEGIA**Antiguako jaietan ere, euskara lagun!**

Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-2199 07



legazpi6@legazpi6.eus